


# ANIMA: BANAKETA ETA KOMUNIKAZIO KANALAK



- Zer egingo dugu gure produktua bezeroengana helarazteko?

Gure produktua bezeroengana helarazteko publizitatea erabiliko dugu, izan ere, hau iruditzen zaigu jendeak gure produktuaren berri izateko metodo efektiboena.

Hainbat aukera ditugu: Sare sozial ezberdinen bidez, kaleko pankarten bidez, telebistako kateen bidez, beste hainbesteren artean.

Gure publizitatea interneten zehar zabaltzea aukeratu dugu, izan ere modu azkar eta errazena iruditzen zaigu. Batez ere sare sozialetan (Instagram, Facebook, Youtube...). Izan ere, gure bezero mota zehatzenak (pertsona gazteek) denbora asko igarotzen dute sare sozialetan, eta bertan ikusten dituzten gauzak beste edonon ikusten dituztenei baino jaramon gehiago egiten die, eta errazago konbentzitzen dira.

- Komunikazio kanalak

Zerrendatu berri ditugun faktore guzti hauek kontuan hartuta, aipatu bezala, publizitatea sare sozialetan zentratuko dugu.

Egingo dugun publizitatea bi modu nagusitan bereiziko dugu:

1. **Iragarkiak:** Sare sozialetan zehar iragarki 'klasikoak' jarriko ditugu. Adibidez Youtube-ko bideo bat hasi baino lehenago agertzen den iragarki bat, edo Instagram-eko publikazio eta 'stories'-en artean agertzen diren iragarkiak.

- 2. Elkarteak:** Sare sozialetan jarraitzaile eta publiko handia duten pertsona eta markekin elkarre bat egitea, beraien jadanik publiko handiak gure berri izateko. Hontarako gaur egun hain famatuak diren 'influencer'-ekin harremanetan jarriko gara beraien Instagram edo Youtube-ko kontuetan guri buruz hitz egin dezaten (proiektua interesatzen bazaie), honek gazteengan inpaktu handia izango duela uste baitugu.

Publizitatea alde batera utzita, bezeroekin harreman zuzenak izateko e-mail bat sortuko dugu, non beraien dudak, iradokizunak eta bestelako proposamenak bidali ahalko dizkiguten, gero guk erantzuteko.

Hontaz gain, Anima-ren Instagram, Twitter eta Facebook kontu bat zabalduko dugu, non gure publikazioen iruzkinen bidez, eta aplikazioek eskaintzen duten mezularitza pribatuaren bidez bezeroen iritziak ezagutu ahalko ditugu, eta beraien duda puntualagoei ere bai irtenbidea eskaini ahalko diegu.

- **Banaketa eta salmenta kanalak**

Gure produktua ez denez produktu fisiko bat, ez dugu salmenta eta banaketa kanalik sortu behar, izan ere jadanik existitzen diren plataformatan lortu ahalko da, eta ez dago bezeroen etxeetara banatzeko beharrik.

**Banaketa kanalei** dagokienez, aplikazioa Android-eko 'Play Store' eta iOS-eko 'App Store' plataformatan egongo da eskuragarri edonorentzat, dohainik.

**Salmenta kanalei** dagokienez 'Premium' harpidetza ordaindu nahi dutenek aplikazioan bertan izango dute aukera harpidetzeko, eskainiko ditugun bi ordainketa metodoen bidez: Kreditu edo debitu txartel baten bitartez edo Paypal erabiliz.